

XXI

edizioa

Germán Cando Rugby Torneoaren



Bilbon, 2011ko Maiatzaren 14ean
"El Fango" Polikiroldegian
(Errekalde) 10.30 etan



UNIVERSITARIO BILBAO RUGBY
C/Al. Larraskitu, 26, 401a
48002 Bilbao
www.universitariobilbao.com



UNIGANS BILBAO R.F.C.
UNIVERSITARIO XV R.T.
eta BILBAO R.C. AITITEAK
e-mail: unigans@terra.es

Reading R.F.C.
Berkshire Wanderers



Est. 1898

SIDRERÍA IBARRA SAGARDOTEGIA

Caserío Ibarra Barrio Ibarra s/n
Zornotza (Amorebieta)

Tlfno. 946 731 100
info@ibarra-sagardotegi.com
www.ibarra-sagardotegi.com





Rugby eta mafia bezalakoak dira.

Rugby, hilketa gabeko mafia bezalako da. Loialtasuna, ohorea, taldeko konzientzia, kontu-garbitzeak, substantzia trafiko, eta gezurretako senidetasuna bere oinarriak dira. "Famiglia" bat da. Batez ere aurrekaldean, baina lerroan ere laguntasun morganatikoak izan dira ere. Lepoko zenbakia 15era hurbiltzen denean, aurrelarien mesfidantza areagotzen da. Hauek "infanteria" betetzen dute, soineko eta gorbata beltzekin, "reservoir dogs" bezala. Bizitzak mele antza izan behar zuen, baina umeentzako lurrinakin.

Ez dago mozorrorik eta jende guztiak ezagutzen du elkar. Marratik pasatzen dana hurrengoan hilarazita ateratzen da istripu bat izan balu bezala.

Besteek isildu, eman, parte hartu edo minak non konpondu kalkulatzeko dute. Isiltasuneko legea konpenituta dago. Aurkakoekin hitz egiten duten aurrelariak ez dira fidatzekoak.

Meletik kanpo, unibertsoa aldakor eta zitala bilakatzen da, eta edonorek arauak eta gizabidea jeltzatzeak direla. orain ezin dela oinkatu eta baloia, laster atera

behar dela ikuskizuna hobetzeko. Gauza horiek. Meletik kanpo, jendea ezezaguna da, edo horrela da beren portaera.

10ak giza lerruna omen du, modako erlijiotan ari da, Aquarius edaten du eta partidua ondoren bakarrik bere kideak eta 12a, bere lankidea, lan zikina egiten duen tipoak ulertzen dute. Zelaian dago-kion 10 rren lana ez dauka garrantzi handirik. Zenbaki pasahitzak bota, diagonalean dauden mutilei keinu arraroak egitea sorbalda atzetik hatzamarrekin, eta saltu, gurutze, faltsu edo guzti hitzak nahasita erabiltzea entzuleak liluratzeko.

Hainbat eta baloi geihago lurrera bota hainbat eta geihago maitatzen duten aurrelariak 10a. Horrez gain 10ak atera botatzen du, aurrelariak egiten ez badute. Dakigunez paketea apartak ugari dira. 10a beti dago aurrelariak pase erdian sartzen direnez arranguratzen. Eta ohiukatzen du irteera hori garbi egon behar dela esanez. Aurrelariak baieztatzen dute eta gero barre egin. Denok dakigu a propos egiten dutela: 9ak aurrelariak erabaki dutelako edo haien jostailuekin dibertitu egin direlako zabaldu dezake baloia. Aldrebes egitea jolas honek jaso egin duen beste okerkeri bat baino ez da.

12a, lehenengo zentroa, aurrelari batek hiru laurden lerroko errespetatzen duen tipo bakarra da. Bere lekua desiragarria da, meleetan parte hartzen ez duen arren. Bigarren zentroa badagola esaten dute baina inork ez daki hori. Rugbian badaude bi pilier, bi bigarren (biekin ez dugu normalki bat egiten) bi flanker eta bi hego, bigarren zentroa entrenatzaileen formulazio teoriko bat baino ez da. Hauek figura hau asmatu egin dute eta horrela jokalariek zorabiatzen dute bere jatorria mantentzen. Bigarren zentrua

benetan existituko badu ezinesan tipo batzango litzateke. Bere helburu bakarria hegoarekin hitz egitea izango litzateke. Eta hegoekin inoiz ez du inor hitz egin jolas zelaian, horregatik bigarren zentrorik ez dago. Zeri buruz hitz egiten da hego batekin?

Hirugarren denboran aurkitzen baduzu igogailu batean sartuta dirudi, eta eguraldiari buruz bakarrik hitz egiten dizu "Egun hona izan dugu gaur jolasteko, eh motel!" Zelaitik hurbiltzen zaizunean sendiari buruz galdetzea gogoak ateratzen zaizu! Ezkonduta zaude? Zer moduz zure gurasoak?

12a beste gauza da. Morfologikoki 12aren gorputza borobilduta ohi dago eta kanoi balaren sindromea omen dauka: Azkartasunean doanean gurutzatzen duenari hankak erauzi egin nahi dizkio.

12aren beste meritua atzekaldekotik hiru zenbakitara bakarrik dagola da. 15a mesprezuko tipoa da. Ginekin jolastea gustoko du, kamiseta gutxi zikitzen du eta normalki guapoa da. Batzutan entsaiuak lortzen ditu baina ia inoiz ez da partiduko gizona. Gauean, atzekaldekoak negarzeinuka dabil bere etxean horregatik: Taldeko izarra da baina ez du inolrrek hori onartzen. Askotan taldeko pilierrrek ez dakite atzelarjaren izena. Entrenatzaileak zerrenda

esaten ari denean pilierra 4an edo 5ean geratzen da. Beste izenak ez ditu entzuten. Badabil toucheak ordenatzen dituzten seinuak aztertzen.

Hirugarren denboran 15 zamarra eraman zuen tipoak armaletako jendea bezala da: rugby ikustea gustatzen zaien jendea, baina kolpe eta lokatsa gabe.

Azkenean eskertzekoa da bere etorrera eta txalokatu behar genuen partiduaren amaieran bere tangenzial lana aipatzeko.

Orain mele erdilariari buruz hirtz egingo dugu, rugby talde baten dagokion kasurik ikaragarrietakoa. 9ak muga dihardu fikzio eta errealtitatean barne, meletik mundura. Entrenatzaileak lerroa eta mele banantzen duenean, 9a geldirik geratzen da, nora joan behar duten identifikatzeko. Izatekidetasun horrek erabat gaizki eragiten diote batzutan. Denok dakigu 9a aurrelari proiektu bat zela. Naturak ez dio modu aproposan hornitu. Kilo, adimen eta altuera aldetik ez dabil patekean jolasteko moduan.

Lehenengo lerroko mutilak haien gorputzak lantzen dituzte, oso errez galtzen eta irabazten dituzte kiloak, eta sabela mugitu badakite besteen farre artean. Adintsuak dira, 40 urte izan eta gero jolasten dute.

Ezin dituzte Zaran alkondarak erosi, baina zelaian haien ahalmen fisikoa abantaila bat da, eta beste abantaila morala ere badago: lehenengo lerroak jatorrizko jokuarren jabeak dira. Lehenengoa, bakarra. Hori ezin da ukatu....

Sakonean, lehenengo lerroen gainean atseden egiten du familiak. Denok dakite eta mozkortu eta gero onartzen dute, eta amultsu jartzen dira. Jendeak hor, kanpoan haiengan gonfidantza ipini dezaketela badaki. Kontu bat ordaindu gabe geratzen bada, zaldi buru bat sar diezaieke aurkako pilierrari ohean. Ez dago hori egiteko kapaz den atzelari bat.

Mario Ornat-en artikulua baten bertsiolibrea.

Germán Cando Torneoa

Germán Cando Torneoparen



“GERMAN CANDO” Torneoa, lehenengo aldiz 1991 urtean egin zen UNIVERSITARIO XV R.T.-ko, Germán Cando Rodríguez adiskide eta jokalariai eskeinia. Germanek 1989an, trafikoko istripua izan zuen eta horren ondorioz elbarri dago.

Ordutik gaur arte hainbat talde eta jokalariek parte hartu dute. Hasiera batean federatutako taldeek jokatu zuten (Mungia, Arrasate, Eibar, Sestao, Ordoiz, Bilbao RC...) eta 2000 urtetik aurrera beterranoek jokatu dute. 2004 edizioa eta 2007koa jendetsuenak izan ziren, sei talde eta 130 jokalaritik gora parte hartu zutelako: Aipatxeagatik, hemen dituzue batzuk: Baionako Xamango; Gimonteko

Limacs; Burdeoseko Peña Becista; Catalunyako Sitges; Donostiko Bardulians; Donibane Lohitzuneko Hospitala, Gernikako Basurde Zaharrak, Xixongo La Calzada eta etxeko taldea, Ungans Bilbao RFC.

lax, Borderez sur L'échez, Hautes Pyrénées-eko ASPIRINEOS taldea lehenengo bider bisitatu gintuzten.

Azkenengo zortzi edizioetan Torneoa Frantzia aldera joan da, 2003 eta 2006 eta 2008 urtean Xamangorentzat (Aviron Bayonnais-eko beterranoak), 2004, 2007, 2009 eta 2010an Peña Becistantzat (Burdeoseko Bec-eko beterranoak) eta 2005an Albaneko Vratsentzat izan da txapela.

Germán Cando Torneoaren XXI Edizioa

Germán Cando Torneoaren

Aurtengo Tornea maiatzaren 14an El **Fango Polikiroldegian** egingo da.

Aurten gurekin lehia egongo diren errugbi taldeak hauexek izango dira: **Baionako** Xamango, **Burdeosko** Peña Becista, Bizkaiko **Trápaga**, eta Unigans **Bilbao** Rugby. Liga sisteman arituko dira.

Partiduen iraupena 16 minututakoa izango da, 8 minututako bi zatitan banatuta.

Torneoaren lehen partidua goizeko 10,00etan jokatuko da eta 14:00etan amaitzea espero da.

Behin Tornea bukatuta, errugbi zelaian bertan "hirugarren denbora" ("*... bi taldeek zelaian jokuaz gozatu ahal izateko elkarri emandako aukera eskertzeko modua...*") jokatuko da eta Germán Cando eta bere sendiari Trofeoa eta oroigarriak emango zaizkie.

Iragana: Unigans Bilbao RFC

Germán Cando Torneoaren

UNIGANS BILBAO RFC taldeak 2000.garren urtean hasi zuen bere ibilbidea UNIVERSITARIO XV R.T. (1969, Bilbo) errugbi taldeko jokalariek beteteranoek osatuta, eta 2001.garren urtea ezker, klub hartako zein BILBAO RUGBY CLUB (1968, Bilbo) taldeko jokalariek osatzen dute.

Ordu ezker, Germán Cando Tornea antolatuta eta jokatzeaz gain, beteteranoen partida ugari jokatu ditu ondoko taldeekin: Gernika, Getxo, Gau Txoriak, Medikak, Xamango, Portsmouth, Reading Rhinos etab. Horrez gain, Xamangoren X urteurreneko Torneoan eta Club Aviron Bayonnaise-ren Ehungarren urteurreneko Torneoan ere lehiatu da.

Torneoaren azken edizioaz geroztik, Unigans taldeak 2010 azaroak 27an Xixongo La Calzadaren kontratan jolastu du;

Trapagakoekin 2011ko urtarilaren 29 an, Reading-en martxoaren 12 RHINOSen aurka, eta Apirilaren 9an HIPPOS INVITATION XVkin izan zuen lehia.

Esan dugunez martxoan Rugby Tour zoragari bat izan genuen. Reading aldera jo genuen, Calcuta Cup zela eta, eta dena izugarria izan zen. Gure anfitrioiak ezin hobeto zaindu genituen eta lerro hauetik erabiltzen ditugu Diego, Danny, Scotty, Graham, Andy, Mark, David, Dwayne, eta Richard-i eskertzeko...behin betiko Reading Rhinos eta Reading RFC talde osoari. Laster izango gara elkarren bai Bilbon zein Reading-en.

Aurten ere berri txarrak izan ditugu. "El Rubio", Borja Lozano jokalariairen aita eta ohizko Uni XVko jokalaria joan zaigu. Goian bego.

Etorkizuna: Bilbao Rugby Eskola

German Cando Torneoparen



“BILBAO RUGBY ESKOLA”, Universitario Bilbao Rugby-ren Errugbi Eskolak zazpigarren urtez jarraian, Urrian hasi du aurtengo bere ibilbidea.

Aurten urrats erraldoiak eman ditugu, Klubaren aurrekontuaren zati handiena sail honetara – diru-hornikuntza onena jaso duenera- bideratuz eta gurekin elkarlanean aritzen diren monitore-entrenatzaileen trebakuntza hobetzeko ahaleginak eginez.

Aipatu beharra dago, gaur egun Ander kirol arduraduna eta lau monitore ditugula: Egoitz, Lukas Turko eta Kanijo

Mutikoei dagokienez, lerro hauen bitartez jakinarazten dizuegu baditugula jokalaririk Errugbi Eskola batek ahalbidetzen dituen 4 kategoriatan jokatu ahal izateko: Aurrebenjaminak, Benjaminak, Kimu-mailakoak eta Haurrak.

Euskadiko gainontzeko errugbi taldeen aurka lehiatzen garen kontzentrazioetan 3 talde aurkezten ditugu, benjaminen bi kategoriek elkarrekin jokatzen baitute.

Baina Eskola honen harrotasunik handiena ez dira garaipenak, 7 edo 8 urteko mutikoei, dagoeneko Errugbia zer den badakitelako; kirol honek berekin dakarrena

ezagutzen dute, hirugarren zatian aurkariari omenaldia eskaintzea zer den badakite, aurkaririk gabe errugbirik ez dagoela jabetzen direlako, eta hartara, aurrean dutena errespetatzen ikasten dute. Azken finean, inor ezertara behartu gabe (asko beste kirol batzuetan aritzen dira naturaltasun osoz) benetako harrobia osatzen ari gara.

Aurten iazko emaitzak hobetu egin ditugu. 52 jokalaririk gaitu eta 57 neska mutikoen kontaketa dugu. Batzuk eskolatik kadete mailara pasatu egin direnez eskala hazitzen ari dala esan genezake.

Ezin dugu erlaxatu, hala ere. Lana jarraitu egin behar dugu, baina baikorrak gara, ondo egindako laneko fruituak hartzen ari bait garelako.

Lerro hauen bitartez gonbitea luzatzen dizuet nahi duzuenean gugana etor zaitezten eta, bide batez, zuen kabuz egiaztatu dezazuen zergatik den eskola gure “harribitxia”.



Gazte mailako taldea 2010-2011

German Cando Torreoaren



Nire klubeko gazte mailako taldearen entrenatzaile bezala lehenengo denboraldian sorpresa izugarriak hartu ditut. Lehenengo, taldearen kalitatea da, tekniko arloan zein gizaki moduan. Bigarrena, lehenengo bezain importante, zelaian izan duten portaera eta dedikazioa, eta horrez gain, laguntasuna.

Ahuleziak ere aurkitu egin ditut, esaterako, entrenamendutara etorrera exkasa eta jokalaria gabezia lesioak direla eta talde indar bat osatzeko. Horrexegatik jokalarien bilketa kanpainak nahitanahiezkoak dira lehiakor maila eusteko, bai kantitatean zein kalitatean. Bestela, txarto pasatuko dugu hurrengo denboraldietan.

Taldearen indarra adierazteko, 2011 martxoaren 5ean, gazte mailako bigarren bueltan barne, Donostian jolastutako partidoa aipatuko nuke.

“Aieteko 10ak”

Martxoaren 5eko goiza eguzkitzua zen,

Donosti aldera joateko Termibusen gerate ginen. Arrazoi desberdinegatik jokalaria gutxiekien joango ginela banekien, baina errealitate krudela espero dudan baina hainbat txarragoa izan zen, eta bakarrik 10 lagun ziren zitan. Halaere partidua jolastea erabaki genuen, autobusa ordainduta zegoen eta. Badakigu klubarentzako esfortzu handia dela autobús bat ordaintzea.

Zelairako lemak argi geneukan: Atzeko ostikadak ez defendatu, joku irekian ez sartu, aurkakoak jokalaria gehiago izaten ba ditu, eta lerroan defendatu mutil guztxiekien plakajeak bikoizten.

Lana gogorra bageneukan jipioia ez hartzeko. Jokalari eta entrenatzaile moduan daramatzadan urtean zehar inoiz ez dut ikusi portaera hobegarrik.

Partiduko azken minututan hiru entsaiu Portu ondoren, ez genuen irabazi gutxigatik: Oroigarria!

Hemen duzue Aieteko 10en zerrenda: Mikel Palomero, Borja Gutierrez, Gabriel Alonso, Telmo Gomez, Aitor Landeta, Aitor Garcia, Giorgi Bazanov, Iñigo Lázaro eta Alejandro Sáenz. Zorionak!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!

Javier Robles
Entrenador Juvenil
UNIVERSITARIO BILBAO RUGBY.

